

## GIG 56

## LASTURKO DOLINA LERROKATUAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,25**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,25**

KALTEBERATASUN-MAILA: **2,25**

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Lastur bailara polje karstikoaren adibide ederra da (51. GIGa). Forma estua eta luzanga du, NW-SE norabideari jarraitzen diona, eta, ziurren-ziurrenik, sakonean faila bat izatearen ondorioz sortu zen. Gaur egun paleopoljetzat har daiteke, beheko azalera egungo maila freatikoaren gainean baitago zintzilik, erreka txiki batek eta hustubide- eta dolina-lerrokadura batek eraginda.

Forma itxi horiek lurpean drainatzen dira, kareharriaren disoluzioaren bidez induskatutako eta dolinek eta hustubideek elikatzen duten lehentasunezko konduktuen bidez.

Ibarraren beheko aldean (Lastur Behea) eta, bereziki, Obietazar eta Arroanzar baserrien artean, inbutu erako hamar bat dolina ikus daitezke, 50 metroko diametroa eta 15 metroko sakonera dutenak, ederki asko lerrokaturik guztiak ere ibarraren barrenean.



Lasturko dolina lerrokatuak bertako behatokitik ikusita.

## NOLA BERTARATU

GI-3292 errepidea, Sasiolatik Lasturrera.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ.*



**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**

X = 552908 / Y = 4789604 / Z = 85



Errekasto desagertu arazi egiten duen sarbegia.